

Laburbira

2018



OTSAILAK 28 – MARTXOAK 28

Euskarazko film laburren zirkuitua

XV. LABURBIRA

8 film labur, minutuko emanaldia

FILMAK

- ***Ilunpetan*** (Koldo Carranza)
- ***Night Shift*** (Izaskun Arandia)
- ***Higadurak*** (Oihane Zunzunegi eta Amaia Otaola)
- ***Ejecutor*** (Javi Arriaga)
- ***Tazan*** (UDA films)
- ***Areka*** (Atxur animazio taldea)
- ***Kreba*** (Oier Fuentes)
- ***Zulo*** (Erika Olaizola eta Amancay Gaztañaga)

Eskariak egiteko epea: urtarrilak 22

leire@topagunea.eus

LABURBIRA 2018

EUSKARAZKO FILM LABURREN ZIRKUITUA
Otsailaren 28tik martxoaren 28ra

ILUNPETAN 2017 (5'00")

Koldo Carranza



Koldo Carranza (Donostia, 1990) Eibarren bizi izan zen Ignacio Zuloaga Institutuan Batxilergo Humanistikoko ikasketak amaitu arte. 18 urterekin Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, eta Zuzendaritzan espezializatu. 2015ean Euskal Herriko Zinema Eskolan Argazkilaritza Zuzendaritzan diplomatu zen. Gaur egun, Bilbon bizi da, eta bertan bere proiektuak garatzen ditu.

Sinopsia: *Ilunpetan*, bere gelan, Leak neska batengan pentsatzen du. Neskak elkartu daitezen proposatzen dionean, Leak erabaki beharko du bere sentimenduak argitara aterako dituen ala ez.



Fitxa teknikoa:

Zuzendaria: Koldo Carranza

Generoa : Drama erromantikoa

Aktoreak: Oksana Pohrebennyk, Natalia Viejo, Charlotte Gerard

Ekoiztetxea: Ozymoron

Musika: Frédéric Chopin, Frank Levy

LABURBIRA 2018

EUSKARAZKO FILM LABURREN ZIRKUITUA
Otsailaren 28tik martxoaren 28ra

NIGHT SHIFT 2017 (15'16")

Izaskun Arandia



Publizitatean lizentziatua eta Gidoigintzan masterduna, telebista eta zine produkzioan 15 urtez gorako esperientzia du. Ingalaterran ikus-entzunezko enpresa ugarirentzako lan egin ondoren, 2010ean IZAR Films sortu zuen eta AGUR ESATEA, bere lehenengo film luzea ekoiztu. Euskal Herrira 2013an itzuli zenetik gidoilari aritzen da, film laburrak ekoiztu ditu, bat zuzendu, antzezlan bat idatzi, ekoiztu eta zuzendu du eta bere bigarren film luzea ekoizten ari da, Maider Oleagaren IRA 26-2 dokumentala. Gaur egun 3 dokumental garatzen ari da: *My Way Out*, Lander Garroren *Intsumituak* eta Iban del Camporen *Glittering Misfits*.

Sinopsia

Gaua heldu da Donostiako La Paz auzo txirora. 40 urte pasatxo dituen Meryk zigarroari azken zurrupadak eman dizkio, sorterrian –Hego Amerikan– utzi behar izan zituen seme-alabez oroitzuz. Garbitzaile aritzen da erdiguneko antzoki batean, gaueko txandan. Antzezlan amaitu ostean, dena hutsik dagoela, iritsi da gaur antzokira. Harrera ingurua garbitzen hasi da, motibazio gabe lan egiteak dakarren nagikeria horrekin. Baina gaur sekula garbitu ez duen leku bakarrera sartuko da: aktorearen kamerinora...

Fitxa teknikoa:

Ekoiztetxea: IZAR Films

TALDE TEKNIKOA

Gidoia eta Zuzendaritza IZASKUN
ARANDIA

Zuzendari Laguntzailea MAIDER
OLEAGA

Argazki Zuzendaria AMARA MOSTEIRO

Kamara Laguntzailea HEIDI OTADUY

2. Kamara Laguntzailea SANDRA GUEVARA

Elektrikoen Laguntzailea ALES PEREZ LARREA

Produkzio Arduraduna KRISTINA ZORITA

Produkzio Laguntzailea ARAN SANTOS

Produkzio Laguntzailea ANGEL ALDARONDO

Makilaia eta Estilismoa ALOÑA GALLASTEGI

Muntaia IBAN DEL CAMPO

Arte Zuzendaria LIERNI IZAGIRRE



Arte Laguntzailea NATALIE HICKEY

Arte Laguntzailea CHRISTIAN TUPPSTER

Zuzeneko Soinua JOKIN VALENZUELA

Postprodukzio Soinua HAIMAR OLASKOAGA
(Mediavox Estudio)

Musika:

"Cumbia Villera de la Ciudad Armera" (Mursego)


TALDE ARTISTIKOA

Mery ENRIQUETA VEGA

Aktorea PATRICIA URRUTIA

HIGADURAK 2017 (03'50")

Amaia Otaola



Eibar, 1995. Ikus entzunezko komunikazioan graduatua eta Euskal Telebistan erredaktore zein ekoizpen lanetan nabil. Dokumentalgintza eta esperimentazioa dira nire alorrak. Hala, MATILDE sormenezko dokumentala izan da nire lehenengo bakarkako lana.

Oihane Zunzunegi



Galdakao, 1995. Ikus entzunezko komunikazioan graduatua. Bidaiatzea eta argazkigintza dira nire pasioak. Izan ere, argazki proiektuak garatzen aritzen naiz, eta horrela burutu nuen Nepalen PAUXA izeneko argazki proiektu pertsonala, nire lehenengo bakarkako sorkuntza.



Sinopsia

60 miloi urte, geologiaren liburu handia. Higadura bakoitza, belaunaldien atal bat da. Badira irakurritako atalak eta irakurtzeko zain daudenak. Arrokek isiltzen duten jakituria gure senideek abesten dute. Denok gogoratzen ditugu txikitako lo kantak...

Fitxa teknikoa

Zuzendaritza, gidoia eta muntaia: Oihane Zunzunegi eta Amaia Otaola

Generoa: Laburmetrai esperimentala

OFF ahotsak: Ane Rodriguez, Miren Madinabeitia, Joserra Ferreiro, Naia Etxebarria eta Matilde Perez.

EJECUTOR 2017 (09'23")

Javi Arriaga

Momentu honetan luzemetraia-dokumental baten ekoizle eragile ari da burubelarri eta, aldi berean, beste bi luzemetraietan atxikitako ekoizle gisa. Ekoiztetxe eta errealizatzaile askorentzat aritu da zuzendari laguntzaile eta lokalizatzaile lanetan, Euskal Herrian zein nazioartean. Lehen laburmetraia 1999an zuzendu zuen; Ejecutor da publizitatean eta zinean urratutako bide luze horretan, bere azken lana.



Sinopsia Zure txanda denean, ez dago ihes egiterik.

Fitxa teknikoa

Ekoizleak: Spektra / Seriousman Studio / Iñaki Urrutia (©2017)

Ekoizle Asoziatuak: Edu Arruga / Lastcrit Postproducción

Zuzendaria: Javi Arriaga

Aktoreak: Iñaki Urrutia, Lander Otaola, Iñaki Maruri, Chema Trujillo eta Karmele Larrinaga

Argazki Zuzendaria: Aritz Bilbao

Muntaia: Dark Sleeper / Oakman

Zuzendari Artistikoa: Camino Ruiz

Soinu Postprodukzioa: Onintze Urrutikoetxea / Xanti Salvador

Grading: Moncho Sanchez

VFX: Viki Polls (Lastcrit Postproducción)

Soinu Zuzena: Iñaki G. Reyna / Selfie

Akarlandan eta Izarran (Euskadi) egina.

LABURBIRA 2018

EUSKARAZKO FILM LABURREN ZIRKUITUA
Otsailaren 28tik martxoaren 28ra

TAZAN 2017 (11')


UDA films

Haizea Azpilikuetak, Mikel Irazustak eta Unai Portillak osatzen dute oraingoan **UDAfilms** taldea. Zinema zaletasuna eta sormena bide dutela, Euskal Herriko gune ezberdinetatik edukiak sortzeko asmoa daukate beti buruan. Hainbat lan eta sari lortu dituzte jada bidetik.



Sinopsia

Idea bat obsesio bihurtzen denean bizitzan eragin handia izan dezake hori erabat aldatu arte.



LABURBIRA 2018

EUSKARAZKO FILM LABURREN ZIRKUITUA
Otsailaren 28tik martxoaren 28ra

AREKA 2017 (06'35")

Atxur taldea

Iaz Beti Bezperako Koplak egiteko osatu zen Ageda Kopla Taldearen jarraipena da. Orduan EHUKo irakasle, ikasle eta ikasle ohi talde bat batu ginen proiektu hura burutzeko. Orain beste talde bat osatu eta irizpide berberekin lanean jarraitu dugu.

Partaideak:

Bego Vicario

koordinatzailea-, Paula

Huarte, Miriam Inza, Jugatx Astorkia, Itxaso Navarro, Beñat Barandika, Usue Egia, Esteban Ramos, Naiara Gallego, Sergio Martínez, Aitor Oñederra, Kote Camacho, Oihana Leunda, Arrate López, Izibene Oñederra, Alots Arregi, Andere Molinuevo, Ximon Agirre, Jon Munarriz, Zaloa Ipiña.



Sinopsia

Euxebik 80 urte ditu. Bere aita gerran desagertarazi zuten eta gertatutakoaren gaineko zurrumurruak entzunak bazituen ere ez du inoiz jakin non zegoen haren hilobia. Frankismoaren miseria eta errepresio guztia gainetik, Euxebik bizirik gorde du aitaren memoria, azkenik haren gorpuzkiak aurki dituzten arte.

Fitxa teknikoa

Gidoia/bertsoa: Andoni Egaña

Zuzendaritza eta animazioa: Atxur animazio taldea

Ahotsa: Andoni Egaña

Soinua: Xabi Erkizia

Edizioa: Edu Elozegi

Produkzioa: Patxi Azpillaga

Diseinu grafikoa: Koldo Atxaga

KREBA (2017, 11'00")


Oier Fuentes

Arrasate, 1985. Irudi eta soinuan espezializatutako Telekomunikazio Ingeniaria, ikus-entzunezkoen freelance gisa ari da gaur egun.

Hainbat film labur eta dokumental egin ditu eta 2017an Lekeitioko Euskal Zine Bileran Zuzendari Amateur Onenaren saria jaso berri du. Kreba film laburrak berak ere Eibar eta Erretereriako Film Labur lehiaketetan Euskarazko Film Onenaren saria ere jaso du, hala nola Gidoi Onenarena Beste Begiradak festibalean.

Sinopsia

Zaintzari buruzko hausnarketa proposatzen du Krebak. Hala, definizioz, Kreba hiru gauza izan daiteke: pitzadura edo arrakala, hernia edo etena, eta itsasoak kostaldera itzultzen dituen objektuak. Kontua da: zer egin pitzadura, eten edota objektu



horiekin?



Fitxa teknikoa

Zuzendaria: Oier Fuentes

Gidoia: Amaia San Sebastián

Ekoizpena: Nuria Casal

Zuzendari laguntzailea: Iñigo Aranbarri

2. zuzendari laguntzailea:

Kristina Zorita

Script-a: Miren Pérez

Argazki zuzendaria: Egoitz Albizu

Argazki-kamera laguntzaileak:

Naroa Elgoro, Irati Martin

DIT: Beñat Herrero

Zuzeneko soinua: Asier Razkin, Amaia San Sebastián

Making OFFa: Jon Artola

Musika: José Ramón García, Willis Drummond

Artea: Aitzole Araneta

Aktoreak: Loli Astoreka, Iñigo Azpitarte, Oihana Maritorea, Mari Asun Pagoaga, Esther Uria, Peio Arnaez

FESTIBALAK & PROIEKZIOAK:

- **Donostiako Antzoki Zaharra** (Bideoaldia, Estreinaldia)
- **Euskal Zine Bilera 2017**
- **Donostiako Zinemaldia 2017** (Bideoaldia)
- **Asier Errasti** Eibarko film laburren jaialdia 2017 EUSKARAZKO FILM LABUR ONENAREN SARIA
- **IKUSKA** Pasaiaiko film laburren nazioarteko jaialdia 2017
- **Zinegin Festibala 2017**
- **Erretereriako XXII. Film Laburren Jaialdia 2017** EUSKARAZKO FILM LABUR ONENAREN SARIA
- **Beste begiradak** – Las otras miradas 2017 GIDOI ONENAREN SARIA
- **Beasaingo Gau Laburra** 2017

ZULO 2016 (19'50")

Erika eta Amancay "Euli-giro" antzezlanak elkartu zituen. Ordutik ZULO ren proiektuan dabiltza lanean. Hau da beraien lehenengo film laburra zuzendari eta gidoilari moduan.

Erika Olaizola (Azpeitia, 1989) 2007an Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan Errealizazio ikasketak egin ondoren, 2009an Donostiako TAEn hasi zen formatzen aktore. Ordutik, ikasten jarraitzeaz gain, aktore lanetan ere badabil, bereziki antzerki munduan. Bere azken antzezlan "Francoren bilobari gutuna". Telebistan "Goenkale" eta zinean "Roberto Caston zuzendariaren Los tontos y los estupidos" ere egin du. "Euli-giro" antzezlanarekin sortu zen Kamikaz kolektiboaren kideetako bat da.



Amancay Gaztañaga (Guayaquil-Ecuador, 1980) 2002 urtean lizentziatu zen Madrilgo R.E.S.A.D-en eta urte berean biolineko irakasle titulua eskuratzen du. Antzerki lanetan mundu osoan biran ibili da Lóm Imprebis taldearen "Quijote" antzeztan bost urtez. Tanttakarekin "Sonujolearen semearen" munduan galdu da. Kamikaz kolektiboaren sortzaileetako bat izan da eta barruko mamuak atera ditu Uxue Alberdiren "Euli-giro" antzeztuz, besteak beste. 2016an euskal antzerki topaketetan ikustelaren saria irabazi zuen "Sweeney" berak moldatu eta zuzendutako antzezlanarekin. Gaur egun berak idatzi eta zuzendutako "Hysteria" antzezlanarekin dabil buru belarri. Telebistan, 3txulo saioan, 4ra ren pertsonaia antzeztan du eta GRISES taldeko abeslaria da.



Sinopsia

Denok gara ezberdinak, denok ditugu beldurrak, ezintasunak, mugak... baina adorea? Denok al daukagu adorea? Istorio honetako bi protagonistak maite dira eta maitasun hori elkarrekin bizitzea hautatu dute.

Fitxa teknikoa

Zuzendaritza: Amancay Gaztañaga eta Erika Olaizola
Gidoia: Amancay Gaztañaga eta Erika Olaizola
Muntaketa: Karlos Trijueque (TAOM)
Soinua: Jagoba Ormaetxea
Musika: Eñaut Gaztañaga eta Raul Olaizola
Argazkigintza: Josu Torrealdai

Efektu bereziak: Aitor Guerrero
Aktore nagusiak: Erika Olaizola eta Mikel Ibarguren
Ekoizpena: Kamikaz Kolektiboa eta Azpeitiko Paradisu Zinema.

